



Teknologia berriak jarri dituzte LH Institutuan

TOLOSALDEA ▶ Wi-Fi gunea
bihurtu da Tolosaldea Goi Mailako
Lanbide Heziketa Institutua

GARAPENA ▶ Garapen handia
izaten ari da «erraztasunagatik
eta kostu baxuagatik» ▶ 3



Bidaietan oinarrituko margolanak, Aranburu Jauregian

TOLOSA ▶ Carmelo Ortiz de Elguea margolari gasteiztarraren erakusketa dago ikusgai egun hauetan Aranburu Jauregian. Patagonia, Cabo Verde, Pirinioak eta beste leku batzuetara egindako bidaietan oinarrituta, 2003an eta 2004an egindako margolanak dira. Olio-pinturak dira, baliabide, motibu, irudi eta teknika

asko batuz lanetan. Bidaia horiek obra egiteko «askatasuna» eman diote margolariari, Javier Viar adituaren iritziz. Pintura naturalista ere bada, pintorearen eta naturaren etengabeko hartu-emana dagoelako. Larunbata bitarte izango da erakusketa ikusteko aukera. LEIRE MONTES ▶ 2

VILLABONA ▶

Guridiren egoera «gogorra» salatu dute

Isolamendu egoeran
dago Curtiseko
kartzelan ▶ 4

IBARRALDEA ▶

Presoen aldeko ekimenak eratu dituzte

Eguesen senideak
bisitarik gabe utzi eta
iraindu dituzte ▶ 6

TOLOSA ▶

Laskorainek irabazi ezinik segitzen du

Launa berdindu du,
Berazubin, Inter Sofa
taldearen aurka ▶ 3

LEITZA ▶

Atarrabian galdu arren, lehen postuan

Aurrerak 1-0 galdu
du Beti Onak
taldearen aurka ▶ 7

ERAKUSKETA ▶

Bizitakoak margolan bihurturik

Egindako bidaietan oinarritutako lanak jarri ditu ikusgai, Aranburu Jauregian, Carmelo Ortiz de Elguea margolariak

LEIRE MONTES

Patagonia, Cabo Verde, Pirinioak... Egindako bidaietan bizitako sentipenak, esperientziak eta inpresioak margolan bihurtu ditu Carmelo Ortiz de Elguea artista gasteiztarrek. Bere azken koadroak, 2003. eta 2004. urteetan egindako lanak, Aranburu Jauregian paratu ditu egunotan. Larunbata arte izango dira bertan ikusgai.

Olioak dira Ortiz de Elgueak erakusgai jarritako koadroak. Baliabide, motibu, irudi eta teknika askok egiten dute bat haietan. Baina, horietan guztietan, egindako bidaiak izan ditu inspirazio iturri margolari gasteiztarrek.

Javier Viar adituaren iritziz, bidaiak horiek «askatasuna» eman diote artistari obrari ekiteko, eta askatasun horrek «morabide askotara begiratze» aukera; gainera, eragin handia izan du bere azkenaldiko

arte ekoizpenaren ugaritasunean».

Ortiz de Elguearena pintura naturalista ere bada: «Izan ere, naturara eramaten du formalki eta estrukturalki». Pintorearen eta paisaiaren artean etengabeko hartu-eman dago, eta hori argi ikusten da bere lan guztietan, «bai objektu naturalen deskripzio zehatzetan, baita errealitatea ezkututzen saiatzen denean ere».

Dena den, artista gasteiztarrek errealitatearekin duen harremana «gatazkatsua» dela dio Viarrek. Horregatik, batzuetan ageriago uzten du koadroetan benetako irudia, formei eutsiz. Beste batzuetan, ordea, ezkutatu egiten du errealitatea, hautsi egiten du, jatorrizko itxura desagerraraziz.

«Gatazka hori du, hain zuzen ere, bere sorkuntza iturrietako bat. Alde batetik, errealitatearen beharra du Ortiz de Elgueak, errealitate horretan istorioak, formak eta egiturak aurkitzeko. Bestetik, ordea, bere ondoan, hurbil, errealitate horretan eskua sartzeko beharra ere sentitzen du, sarritan errealitatea ezezagun bihurtzeraino, dena erabat urratuz eta deformazio harrigarriak lortuz».

Nahi duenak badu oraindik benetako paisaiak aurkitzeko eta igartzeko aukera, Aranburu Jauregiko hormetan. Larunbata arte bisita daitezke Ortiz de Elguearen azken lanak. Egunean, 17:30etik 20:30era dago zabalik erakusketa.



Bidaiak. Patagonia, Cabo Verde, Pirinioak... Egindako bidaiak izan ditu inspirazio iturri artistak. L. M.



Errealitatea. Batzuetan benetako irudia ageriago agertzen da Ortiz de Elguearen koadroetan; beste batzuetan, ordea, ezkutatu egiten du errealitatea, hautsi egiten du, jatorrizko itxura desagerraraziz. L. M.



Paisaia, natura. Margolariaren eta naturaren eta paisaiaren arteko hartu-eman etengabekoa da. L. M.

DATUAK ▶

Egilea. Carmelo Ortiz de Elguea margolari gasteiztarra.
Gaia. Azken lanak, 2003. eta 2004. urteetan egindako koadroak: Patagoniara, Cabo Verdera, Pirinioetara eta abarretara egindako bidaietan oinarritutakoak.
Lekua. Aranburu Jauregia.
Egunak. Hilaren 5a arte, larunbata.
Ordutegia. 17:30etik 20:30era.



Deustuko
Unibertsitatea
Donostia

Sesión Informativa

Eguna: MARTXOAK 2, asteazkena

Lekua: Antonio M^o Labaien
KULTUR ETXEA
Foruen Plaza, 1
TOLOSA
Ordua: 19etatik-20etara

- BERRIA! Titulazio Bikoitza: ESTE-ESIDE. Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako Lizentziatura eta Kudeaketako Informatikako Ingeniaritza Teknikoa. (6 urte)
- ESTE. Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza. (5 urte)
- Giza Zientziak: Komunikazioa. HUCO. (4 urte)
- Giza Zientziak: Enpresa. HUEM. (4 urte)
- Turismo. (3 urte)
- Gizarte Lana. (3 urte)

Orain da
zure garaia

Ikasle berrientzat informazioa
Tel: 943 326 308

www.comunicaciondonostia.deusto.es

HEZKUNTZA ▶

Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutua, haririk gabeko gune

Wi-Fi teknologia jarri berri dute ikastetxean; edonor, edonondik, Internetera konekta daiteke, haririk gabe

LEIRE MONTES

Tolosaldea Goimailako Lanbide Heziketa Institutuan gako-tzat dute teknologia berrien aldeko apustua. Oraintsu, haririk gabeko gune bilakatu da ikastetxea. Izan ere, Wi-Fi (*Wireless Fidelity*) teknologia instalatu dute.

Haririk gabeko konexioaren bidez, edonork Interneterako banda zabaleko atzipena izateko aukera du eskolan: «Ikastetxeko edozein lekutan —geletan, korridoreetan, eskailere-tan, atarian...— egonik ere, ordenadore eramangarri edo eskuko agenda pertsonal (PDA) baten bidez Interneterako atzipena izango du erabiltzaileak», azaldu dute Tolosaldea Goimailako Lanbide Heziketa Institutuko ordezkariak.

Ikasleek, irakasleek, gurasek, kanpo bisitek eta, oro har, edonork eduki ahal izango du Interneterako sarbidea ikastetxeko edozein lekutatik. Horrela, txatetan, foroetan eta web orrietan sartu ahal izango dira, baita posta elektronikoa erabili ere, edonondik, eta haririk gabe.

«Esan beharra dago gaur egun, irakasle batzuk, esperientzia pilotu gisa, PDAk erabiltzen hasiko direla, ikasleen eguneroko jarraipena egiteko eta erregistratzeko. Eskuko agenda pertsonal hauetan sartzen den informazioa berehala ikastetxeko zerbitzarietara igorriko da». Orain arte, eragiketa hori PCen bidez egiten zuten ikastetxean; «denbora aurrez-teko», baina, PDAkin hasiko dira orain, «azken hauen pizte eta konektatze denbora laburragoa baita».

Ikastetxeko ordezkarien esanetan, «Wi-Fi teknologia hedapen handia izaten ari da udaletxeetan, aireportuetan, tren geltokietan, liburutegietan, biltzar aretoetan eta, nola ez, ospea duten hainbat ikastetxetan». Teknologia honekin instalatzen diren sareak —antena— «errazak» direla diote, ez baita haririk jarri behar. Gainera, «hari sare konbentzionalen alden-aldenduz, ezarpena mer-



Tolosaldea Goimailako LHlko bi gazte, Wi-Fi teknologia erabiltzen. HITZA

JARDUNALDIA ▶ GAUR, 16:00ETAN

Gaur, abio handiko mekanizatua izango dute hizpide zenbait adituk, ikastetxean. Hauxe da egitaraua:

16:00. Jardunaldien aurkezpena, Tolosaldea LH Institutuko Jexux Arregiren eskutik.

16:10-17:30. Abio handiko mekanizatua, Tekniker-eko Patxi Lopezekin: fabrikazioaren azken joerak, abio handiaren definizioa,

funtsezko osagaia —mozte tresnak, makina-erraminta, hozte sistema, mekanizatuaren estrategiak—, eta adibide praktikoak.

17:30-19:00. Abio handiko makineta mekanizatua. Tolosaldea LHlko irakasleen eskutik. Mekanizatu behar den piezaren analisia.

19:00-19:15. Formakuntza ikastaroen inguruko informazioa, Gorka Igaratuak eskainia. Ondoren, *luncha* izango da.

ke ateratzen» dela gaineratu dute: «Wi-Fi bidez, 2,5 Ghz-eko bandan lan egiten da, eta 54 Mbps-etako abiadura harrapatzen da». Egun, Tolosaldea Goimailako LHIn bi sare mota dituzte: harikoa, eta haririk gabeko.

Jardunaldia, gaur

Gaur arratsaldean, bestalde, jardunaldi berezia antolatu

dute institutuan (Santa Luzia, 17). Abio handiko mekanizatuaren erakustaldia egingo dute bertan. 16:00etan hasita eta 19:30ak aldera arte, zenbait adituk abio handiko mekanizatuaren eta formazio ikastaroen gainean jardungo dute.

Jardunaldia irekia da, eta edonork har dezake parte. Interesa duenak ikastetxera (943 65 11 47 telefono zenbakia) deitu besterik ez du.

POLITIKA ▶

Lopetegiri omenaldia, heriotzaren urtemugan

Duela 17 urte agertu zen hilik ziegan; lore eskaintza egingo diote igandean, Urkizun

L. MONTES

Mikel Lopetegiri tolosarra Herri de la Manchako (Espainia) ziegan hilik agertu zela 17 beteko dira gaur. Urterto legez, omenaldia antolatu du euskal preso eta exiliatuaren aldeko ekimenak. Igandean, hilaren 6an, lore eskaintza egingo dute Urkizun, 12:00etan, haren omenez eraikitako monolitoaren aurrean. «Herriar guztiak» gonbidatu dituzte.

«Garai hartan, 1988an, sakabanaketa politikak lehenengo urratsak ematen hasiak zioten. Eta, garai hartan, gaur egun sakabanaketa politikaren aurka agertu eta hainbeste hitz egiten baina ezer gutxi egiten duen alderdiak eskuak gorritu arte txalotu zuen zamuketa ala heriotzaren oinarritutako estatu estrategia hori», gogoratu du euskal

preso eta exiliatuaren aldeko herri ekimenak.

Era berean, «17 urte eta gero sakabanaketa politikarekin amaitu ez» dutela salatu dute: «Inoiz existitu ez den euskal preso kopururik handiena ehunka espetxetan berrreiturik dago. 17 urte eta gero inoiz baino istripu gehiago jasaten dituzte euren senideek eta lagunek. Euskal presoaren aurrean, haren beren estatus politikoa aldarrikatzeko borrokaldirik luzeak egiten dituzte. Eta espetxeetan izandako eskubideen urraketa puri-purian jarraitzen dute».

Beste aldera begiratzeko garaia ez dela eta «sufrimendu eta egoera latz honekin amaitu» behar dela azpimarratu dute: «Baldintzak egon badaudelako, beti ere herriaren nahiak eta borondatea errespetatu gero».

ARETO FUTBOLA ▶

«Garaipena ikusi ezinik»

Launa berdindu du Laskorainek, Yustosoren, Saldiasen, Altunaren eta Barriolaren golek

L. MONTES

Azken sei jardunaldietan ez du garaipenik ezagutu Laskorainek. Lau porrot eta bi berdinketa izan dira denera. Azkena, larunbatekoa, Inter Sofa taldearen aurkakoa: 4-4. Aurreko jardunaldian bezalaxe, horitxoek ez zuten asmatu norgehiagokan zehar lortutako errenta mantentzen, eta zapo gazi-gozoarekin amaitu zuten partida.

Lehen zatian areto futbol bikaina egin zuten Egizabalen mutilek: kontzentrazio eta serio-tasun handiarekin aritu ziren defentsan, eta erasoan izan zituzten aukera gehienak gol bihurtu zituzten. 2-0 aurreratu ziren, «Yustos hazitaroak eta Saldias birrikak lortutako bi goli esker. Inter-ekoek alde murriztu zuten, baina beste bi egin zituzten Altuna zezentxoak eta Barriola printzeak. Aldageletara 4-1 itxaropentsu batekin joan ginen», azaldu dute ikastolakoek.

Bigarren zatian, ordea, gauzak «zuritik beltzera» aldatu ziren laskoraindarrentzat: erasoan izan zuten eraginkortasun falta eta atzean egindako hiru huts zirela medio, Bilbokoek partida berdindu zuten. «Azken minutua nerbio krisia emateko modukoa izan zen: bi ateetan gola egiteko aukera garbiak, lehendabiziko etxekoek eta bost segundo falta zirenean kanpotarrek». Kontuak kontu, bere horretan jarraitu zuen markagailuak, eta puntu banarekin etxeratu ziren bi taldeak. Alonso, Altuna, Amatriain, Arregi, Barriola, Domentxe, Gil, Saldias, Yustos eta Zubillaga aritu ziren Berazubini.

Berdinketa «justutzat» jo duten arren, «puntu bakarra sari eskasa» iruditu zaie horitxoei, batez ere denbora luzean aurretik joan zirelako: «Kolpe moral hau ahaztu eta sailkapeneko hiru lehenen artean sailkatzea izan behar dugu orain jomuga».

VILLABONA ▶ PRESOK

Iñigo Guridiren «isolamendu egoera gogorra» salatu dute

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak preso billabonatarren bizi baldintzak «infernuaren pareko» direla azaldu dute

IMANOL GARCIA

Iñigo Guridi billabonatarra da preso politikoen borrokaldiraren egungo txandan dagoenak bat. Guridi Teixeira Curtis espetxean dago, Coruñaiko Curtis herrian. Espetxeko zigor moduluan dago, «infernuaren pareko», Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimendukoak deskribatzen dutenez.

Curtiseko hiru preso politikoei lau urte daramatzate isolamendu modulo berezietan. «Erabat bakarturik» daudela eta bertako bizi-baldintzak «oso gogorrak» direla nabarmendu du hainbatetan Guridi berak, Mugimendukoaren esanetan: «Urte osoan eguzki izpirik ez dela sartzen, argi artifiziala besterik ez dutela eta ziegak benetan txikiak direla salatu du. Saguak, arratoiak eta iturritik ateratzen den urak gasolina usaina duela».

Horrela laburbildu dute Curtiseko preso politikoei bakar-tzeak zer esan nahi duen: «Bi kartzelerorekin eta janaria ekartzen diguten ordenantzeekin soilik egon ahal izaten gara (...). Isolamendua zigor modulua da. Bertako arauak berezia eta espetxe barruko beste arauetatik desberdinak dira. Erregimen gogorragoa da, eta presoak babesik gabe uzten



Guztion artean euskal presoak Euskal Herrira lelopean egin zuten manifestaldia Anoetan hilabeteko azken ostiralean, borrokaldiran dauden presoekin elkartasuna adieraziz. I. GARCIA

ditu. Isolamendu galeria bereziko atea gurutzatuz gero, araudiek eta erregelamentuek ez dute indarririk eta kartzeleroek beraien legeak aplikatzen dituzte inpunitate osoz».

Presoen esanetan, «astero arau berriren bat asmatzen dute. Esaterako, norberaren edalontziarekin gosaria hartzen ez uztea eta, ondorioz, gosaririk gabe uzten zaituzte. Edo, beraien iritziz botila gehiegi dituzulako ura kentzea, edo arropa kentzea hiru kamisetak baino gehiago dituzulako». Medikuarekin kontsultak

barroteen atzealdetik edo leihatila batetik egiten direla, eta dentistaren kasuan bere «jarrera guztiz axolagabea» salatu dute.

Isolamenduan daudenek hamar metro karratuko gela batean igaro behar dute egun osoa. Oso hezeak dira eta ez da sekula eguzki izpirik sartzen. Era berean, ezin dute kanpoaldean dagoena ikusi, eta leihotik hiru metroa horma handi bat dute. Horregatik, argi artifiziala erabili behar dute une oro. Horrek ikusmena gero eta nekatuago izatea eragiten ari da.

ANOETA ▶ UDALA

Ikastaroak autonomo eta mikroenpresentzat

Herriko KZgunean martxoan zehar doako hainbat ikastaro antolatu dituzte

I. GARCIA

Anoetako KZgunean martxoan hainbat ikastaro antolatu dituzte enpresa txikientzat eta autonomoentzat. Ikastaroak doakoak dira eta interesaturik daudenak Anoetako udaletxera joan edo deitu behar dute. Hilaren 14an, *Bete faxaren funtzioak ordenagailuan* ikastaroa 16:00etatik 18:00etara. Hilaren 15an, ordu berdinean, *Zure negozioaren ekipoinformatikoak osorik artuta babes-tu: Panda Platinum Internet Security 2005* ikastaroa. Hilaren 16an, bi ikastaro: 16:00etatik 18:00ra, *Komunikatu hornitzaile eta bezeroekin posta elektronikoen bidez*; eta 18:00etatik 20:00etara *Bilatu produktu, prezio eta lehiakideak Interneten*. Hilaren 17an, 16:00etatik 18:00etara *Banka Elektronikoa: Kontu mugimenduak, intsul-daketak eta transferentziak Interneten* eta *Banka elektronikoa: ordainagiriaren helbideratzea, ordainketak eta ko-*

brantzak Interneten. Hilaren 31an, ordu berdinean, *Antolatu zure negozio agenda (egutegia, zereginak eta oharrak) posta elektronikoko tresnak erabiliz*.

Begiraleak

Bestalde, Anoetako udalekue-tarako eta pazko asteko ludao-tekarako begiraleak behar ditu Udalak. Udaleku irekiak uztailaren 4tik 15era 10:00etatik 13:00etara ikastolan izango dira eta Pazko asteko ludoteka martxoaren 29tik apirilaren 1era, 11:00etatik 13:00etara ikastolan. Begiraleen eginbeharrekoak: umee-kin jolastu, eskulanak egin, txangoak prestatu, jaiak antolatu... 18 urtetik aurrera izan behar dute eta interesatuta dagoenak deitu behar du udaletxera, hilaren 12a arte. Kontutan hartuko da hautaketa egiterakoan: anoetarra izatea, astialdiko begirale titulua izatea eta haur eta gazteen aisialdian eskarmentua izatea.

IRURA ▶

Saizar eta Ipintza txapeldunak eskoban

Otsailaren 19an jokaturako bailarako mahai jokoen txapelketan parte hartu zuten Irurako jubilatuen elkarte kideak. Maritxu Saizar eta Asun Ipintzak eskoban irabazi egin zuten eta Beasainen Goierrikoen kontra jokatu dute. Beste partehartzaileak: 6ko urrian, Maria Luisa Armendariz eta Ana Centeno; punttuan, Anttoni Lazkano eta Mari Paz Armendariz; musean 8 erregerekin, Maria Luisa Rodrighez eta Jesus Vicente; musean 4 erregerekin, Luciano Lasa eta Pakita Errekalde.

ANOETA ▶ GIZARTEA

Iruñera egunpasa Alkartasunarekin

Alkartasuna jubilatuen elkarteak bidaia antolatu du Iruñera. Elkarte kide ez direnentzat ere zabaldua dago deialdia. Martxoaren 29an izango da irteera eta goizeko 8:30ean aterako dira. prezioa 8,50 eurokoa da eta autobusa, gosaria eta bazkaria prezioaren barne daude. Izena emateko Alkartasuna biltokian.

ALKIZA ▶

Perkusio eta soinketa ikastaroak

Hainbat ikastaro antolatu dituzte Alkizako Kultur Etxean. Perkusio ikastaroa (denontzat), martxoaren 3tik maiatzaren 26a bitartean, 14:30etik 16:00etara. Soinketa (denontzat), astelehena eta asteazkena, 19:00etatik - 20:00etara. Bestalde, Emakumeen Nazioarteko eguna ospatzeko, herriko emakumeei antolatuko afarira gonbidatzen zaie, larunbatean, Alkizako ostatuan, 21:00etan. Izena emateko epea gaur. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateko bulegoetan, 943 69 39 30 telefonoan.

ALEGIA ▶ KULTURA

Balorazio «oso ona» egin dute Kultur Etxearen gainean

Duela bi hilabete hartu du Alegiako Udalak Kultur Etxeko funtzionamenduaren ardura eta «gustura» da emaitzarekin



Alegiako Kultur Etxeak bisitari ugari izaten ditu egunero bere eskaintza ezberdinei esker. NOELIA LATABURU

NOELIA LATABURU

Bi hilabete igaro dira dagoeneko Alegiako Udalak Kultur Etxearen funtzionamendua hartu zuenetik. Aurretik —eta zortzi urtez gidaritzaren eman ostean— izandako Kirol On enpresa beasaindarraren lana ordezkatu dute. Erronka hori aurrera emateko bi gaztek hartu dute Kultur Etxeko ardura: kultur dinamizatzailea den Monika Atxutegi eta garbitzailea eta atezaina lanak burutzen dituen Maria Karrera. Sei hilabete epea eman diete, hasiera batean, eta uztailean berriz ere erabaki beharko dute etorkizu-

Langileak «oso gustura»

Maria Karrerak eta Monika Atxutegik «oso pozik» eta «ilusio handiarekin» hartu dute Alegia kultur ekitaldiekin bustitzeko konpromisoa. Atxutegi herriko kultur talde guztiak bildu da bi hilabete hauetan zehar, beraien kezka, beharrak eta proposamenak entzuteko. Bere helburu nagusia orain behar horiek betetzen saiatzea izango da.

Guztira bederatzita dira Alegian kulturaren harira osatutako taldeak eta kultur dina-

mizatzailea guztiak elkartu da: San Joan eskolako Guraso Elkarteak, Aralar Institutuko Guraso Elkarteak, Alegiako Gaztetxea, Txintxarri Abesbatza, Argazki taldea, Dantzari txikien taldea, A.K.O., Jubilatuen Elkarteak eta Antzerki taldea.

Karrerak eta Atxutegik kultur taldeek bultzada txiki bat baino ez dutela behar ondorioztatu dute. «Ideia asko dauka, baina dena koordinatzen duen norbait behar dute». ◀

nean zer egin. «Oraindik goiz da zer gertatuko den jakiteko», esan dute bi gazteek.

Kultur ekitaldi eskaintza zabaldu dute alegiarrek. Berriena gaur bertan hasiko den eskulan tailerra da. Hiru talde osatu dira eta Kultur Etxean bertan eskainiko da ikastaroa. Erakusketa bat ere abian jarriko da laister eta hitzaldi ezberdinak ere emango dira batzar aretoan datozen egunotan: Amaia Agirre Muñoaren gidaritzapean *Elkarbizitza eta gatazka familiar* izenpeko hitzaldi zikloaren beste bi hitzaldi eta 50 eta 60 urte bitarteko emakumei zuzendutako minbiziaren gaineko hitzaldia. Martxoaren 18an, berriz, Loatzoko musika eskolako emanaldia izango da. Gaztetxeak antolatutako duen euskal dantza ikastaroa ere Kultur Etxean egingo dute ostegunero eta martxoaren 10ean hasiko da.

Bestalde, aurretik zeuden kirol jardunaldiak mantendu dituzte, karate, aerobik, 3. adineko gimnastika, mantetze gimnasia, hain zuzen ere. «Hasiera batean, jendea kezkatuta zegoen monitoreak aldatu zirelako, baina frogara epea eskaini zitzaion eta denek oso gustura jarraitu dute», adierazi dute arduradun berriek.

I. Kultur Astearen erronka

Udaberriaren etorrerarekin bat eginez, kultur ekitaldi berriko astea antolatuko nahi dute Kultur Etxeko langileek, I. Kultur Astea, alegia. Hau da Alegiarako urte honetako erronka nagusia. Helburua kultur talde guztiak parte hartu ahal izatea da eta bakoitzak bere lanaren berri ematea. «Kultur batzarretan jadanik proposatu dugu eta talde eta elkarte guztiak oso ondo hartu dute ideia», aitortu du Monika Atxutegik. Horrela, dantza, argazkilaritza, eskulanak eta bestelakoak uztartzeko aukera izango litzateke ekitaldi ezberdinez beteriko aste batean zehar. Halaber, udazkenerako I. Kirol Astea antolatzeko proposamena luzatu dute, «baina hori aurrerago» ikusiko dela azaldu dute.

AMEZKETA ▶

Bihar bilera Ugarte auzoko biztanleentzat

Iazko urtean hasitakoarekin jarraituz, bihar, osteguna martxoak 3, 20:30ean bilera izango da Ugarte elkartean. Aurreko aldietan bezala bertan aipatu eta hitz egin ahal izango dute ugartearek hainbat gaitaz: herrian eta auzoan ikusten dituzten beharrek, udaletxeari eskatu beharrekoak, beraien antolatutako zikloaren ekintzak, besteak beste. Bilera irekia izango da eta ugartearen guztiei bertara azaltzeko deia luzatu nahi du elkarteak.

BALIARRAIN ▶

Puntu txapelketaren irabazleak

Puntuarekin amaitu zen igandean karta joko txapelketa Baliarrainen. Azken honen irabazleak Bixente eta Angel Maria izan ziren. Bigarren postua Manolok eta Benitok eskuratu zuten; hirugarrenean, berriz, Juxta eta Maitere izan ziren. Laugarren, bosgarren eta seigarren postuak Axun eta Maria Rosario, Atte alabak eta atte semeentzat izan ziren, hurrenez hurren.

ALEGIA ▶

Festa Batzordearen bilera, bihar

Bihar osteguna Alegiako Festa Batzordeak bilera izango du, 19:30ean herriko udaletxean. Bilera bertaratuko nahi duen guztiari irekia izango da eta jende berria lortzea izango du helburu. Festa Batzordearen ardura hartu nahi dutenak. Ardura nagusia Alegiako festak antolatzea da.

hitza **txokoa** ^{lagunen}

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ HITZARI 42 euroko diru laguntza ematen dioten harpidedunek HITZA egunero jasotzeaz gain **ABANTAILA EZBERDINAK** izango dituzte; harpidedunen txartela izango dute eta, besteak beste, HITZAK egiten dituen zozketetan parte hartzeko aukera izango dute.

▶ HITZaren laguntzaile izan nahi baduzu, deitu **943 30 43 46** telefono zenbakira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

GUTUN@K ▶ 

izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Gaztelun energia aurrezteko plana

Badirudi Gaztelun Energia aurrezteko Plana dugula. Ez daki-gu ekonomia edo ekologia arrazoiengatik den, baina berogailuan behintzat, aurrezten dugu.

Udaletxea berritu zenean sendagilearentzako gela bat egokitu zen, ostegunero etortzen baita; berogailuarekin egokitua dago, udaletxe guztian bezala. Idazkaria eta alka-

tea astelehenetan, asteazkenean eta ostiraletan joaten dira udaletxera eta berogailua pizten dute. Ostegunetan sendagileak bakarrik joaten da eta inork ez du berogailurik pizten. Hau dela eta, errezetak bakarrik ematen ditu, berokia eta eskularruak kendu gabe hoztazekin ezin baita gaixo dagoen inor aztertu. Sendagilearen gelan kanpoan baino 4 edo 5 gradu gutxiago daude, beraz pentsa dezakezue nolako hozta dagoen egun hauetan.

Azken alditan sendagilea

joan egin da, ez baitira kondizio egokiak inor artatzeko eta Ibarroko edo Lizartzako osasundegira bidali behar izan du Gazteluko jendea. Gauzak horrela, udaberrirarte edo berogailua jarri arte Gaztelura ez joatea erabaki du.

Bestalde, Eguberri hauetan Osingoiaren haurrentzako ludoeteka bat antolatu zuten udaletxeok. Han ere berogailurik gabe. Gurasoek alkateari hotza zegoela eta berogailua eskatu ziotenean, hurrek ez dutela hotzik pasatzen, edo eta

bestela, erropa gehiagorekin jantzita bidaltzeko erantzun zien honek. Gurasoek etxeko berogailu elektrikoa eramatea erabaki zuten.

Gazteluko alkateak hilean 1.200 euroko soldata (200.000 pza.) kobratzen du egun erdiko lanagatik. Herriak daukan aurrekontuarekin argi dago nonbaitetik aurreztu behar dela soldata hori ordaintzeko, eta berogailuan, behintzat, aurrezten da.

JUANJO ARANZABE,

JOSE MARI GOIKOETXEA ▶ GAZTELU

BERROBI ▶

Emakumeen Eguneko afarian izen-ematea

Emakumearen Eguneko afaria martxoaren 5 ean egingo da Iriarte jatetxean eta 15 euro ordaindu beharko da Udaletik herritar guztiak bul-tzatzen dituzte parte hartze-ria. Izen-ematea, martxoaren 4a bitarte egingo da jatetxe-aren bertan (943 68 30 78).

IBARRA ▶

Hego Polo-ko ibilaldiko emanaldia bihar

II. Mendi Astearen baitan, bihar Hego Polo-ko ibilaldiko emanaldia eskainiko du Angel Navasek 20:00etan Kultur Etxean.

ELDUAIN ▶

Tutorearen bisita izango du bihar KZguneak

KZgunean bihar izango da tutorearen bisita 9:00etatik 13:00etara. Interneten inguruan zalantzak argitzeko aukera izango da, beraz.

IBARRA ▶

Aerobik maratoirako izen-ematea

Datorren larunbatean egingo da X. Aerobik Elkartasun Maratoia Ibarroko kiroldegian 16:30ean. Bildutako dirua San Bartolome misio taldeak dituen hiru proiektuei laguntzeko izango da. Parte hartu nahi duenak, Kutxan edo Euskadiko Kutxan 6 euroko ingrosua egin eta gero ziurtagiria kiroldegian aurkeztu beharko du, larunbata baino lehen ahal bada.

KIROLAK ▶

Bosgarren postua lortu dute Ongayk eta Pagolak

Gustura ageri dira eskualdeko bi judokak Espainian lortu dituzten emaitzekin

I. TERRADILLOS

Pasatu den asteburuan lehiatu berri dira Maria Ongay tolosarra eta Xabier Pagola ibartarra Espainiako Judo Txapelketan, eta emaitza onak ekarri dituzte biek ere etxera.

Pagolaren kasuan, oso pozik ageri da eta bosgarren postura heltzea ez zuela espero adierazi du. Hurrengo txapelketa Gipuzkoan izango da berretzat nagusi mailan, baina tartean herriko torneoa izango ditu.

Mariaren kasuan, bere buruari presio handia jarri zion, aurreko urteetan dominarekin itzuli baitzen txapelketatik; aurtengoan posible izan ez bada ere, gustura dago, maila ona erakutsi duelako eta ahal zuen hobekien egiten saiatu delako.

PRESOAK ▶

Ekitaldi ugari herriko presoekin bat eginez

Gaurko bilkuran parte-hartzea eskatu dute; bisita egunik gabe utzi eta iraindu egin dituztela diote Egues-en senideek

IÑIGO TERRADILLOS

Herriko hiru preso politikokoak burutzen ari diren protestaldiarekin bat eginik, Ibarroko herri ekimenekoak hainbat ekitaldi burutzen ari dira egunotan.

Pasa den larunbatean sinadura bilketa burutu zuten Ibarroko sarreran eta 140 bat lagunek bat egin zutela adierazi dute. Honetaz gain, Etxerat-en aldizkaria banatu zuten eta honekin batera, Jon Mintegiaga, Eider Ijurko eta Ekaitz Aramendi preso ibartarrek bidalitako gutunen kopiak eman zituzten.

Atzo gauean, kotxe karabana egin zuten Ibarroko plazatik aterata herri osoan zehar. Megafonia bidezko mezuak zabaldu zituzten eta sirenak ere entzun ahal izan ziren.

Gaur, 19:00etan egingo dute bilkura euren mozioa eta gaiak aurkezteko; 18:00etan egin ohi dira normalean Ibarroko bilkurak, baina kasu honetan Uda-



Herri ekimenekoek egin zuten bilkura Ibarroko plazan. I. TERRADILLOS

lak atzeratzeko baimena eman du ekimenekoek eskariari erantzunez. Herritarren parte-hartzea eskatu dute.

Ostiraletan, auto karabana aterako da Ibarroko plazatik 19:00etan eta Benta Haundirainoko bidea egingo dute. Bertatik, eskualdeko kotxe karabana aterako da eta idatziak banatu dituzte kalean. Larunbatean, beste sinadura bilketa bat egiteko asmoa dutela iragarri dute; hau 11:00 etatik aurrera izango da Ibarroko sarreran.

Bestalde, Ana Belen Egues, Elduaingo preso politikoa, Castellongo espetxetik Soto del Real-era eraman dutela azaldu dute senideek. Bertako funtzionarioek astelehen honetarako bisita baimena eman ondoren senideak hara joan ziren Elduaingo presoak ikusteko asmoz, eta salatu nahi izan dute, ezin izan zuten ikusi eta «barre egin zieten arpegira». Gauzak honela, hilabete atzeratu beharra izan da Ana Belen Egues bisitatzeko eguna.

iragarki laburrak ▶



Anoeta. 75m²-ko etxebizitza berrieta. Terraza kanpoaldera, oso eguzkitsua.

Andoain. 75m²-ko etxebizitza kanpoaldera, igogailua, eguzkitsua.

Belautza. 1.060 m²-ko pabilioia salgai; oso argitsua eta garabiarekin.

Belautza. 225 m²-ko pabilioia alokairuan eskaintzen da. Argitsua. Ur eta elektrizitate instalazioarekin.

Donostia. 104 m²-ko etxebizitza Colon pasealekuan salgai. Ikuspegi

zoragarriak eta erabat berrieta.

Gaintza (Nafarroa). Berrikuntza behar duen 3 solairuko baserria salgai.

Ibarra. 95 m²-ko etxebizitza, oso eguzkitsua, kanpoaldera begira. Ikuspegi ederra.

Ibarra. 75 m²-ko pabilioia eta 2.500 m²-ko lur saila salgai. Nekazal ustiapenerako egokia.

Lizartza. 14.000 m²-ko pabilioiak salgai, 300, 450, 625 eta 900 m²-ko

moduluetan, eraikuntza berrikoak.

Tolosa. Agintari kalean 75 m²-ko eraikuntza berriko etxea salgai. Igogailua eta trastelekua.

Tolosa. Santa Klara kalean 90 m²-ko etxebizitza berrieta. Atzealdean baratz propioa.

Tolosa. Gernikako Arbolan, 155 m²-ko etxebizitza salgai, kanpoaldera, berritzea.

Tolosa. Gudari kalean, Samaniego kalearekin iskitan, 110 m²-ko etxea,

kanpoaldera, eguzkitsua, igogailua. Berritzea premia.

Tolosa. Zabalaretan. 135 m²-ko etxebizitza, trastelekua, garaje bikoitza aukeran.

Tolosa. Lokal komertzialak, salmantan edota alokairuan (Gorrasabel, Iurre, Kale Nagusia, Larramendi...).

Villabona. Arroa kalean etxebizitza lehen solairuan. Igogailua, hiru ikuspegi, berritzea.

GIZARTEA ▶

Xabierraldira joateko izen-ematea zabalik

Autobusak antolatuta dituzte eskualdeko erromesentzat, martxoaren 12rako

J. ASTIBIA

Martxoaren 12an, larunbata, II. Xabierraldia egingo dela eta, autobusak antolatuta dituzte erromesentzat, eskualdeko eliz-barrutiak.

Horrela bada, jakitera eman dutenez, bi autobus aterako omen dira Leitzaldekotik egun horretan, Oialde aurretik: bata goizaldean, 5:30ean. Hau Monrealeraino joanen omen da. Han Nafarroako mendialdeko beste herrietako jendearekin elkartu ondoren, Xabier aldera aterako omen dira erromes, oinez, 34 kilometroko bidea egingez.

Bestea, berriz, egun bereko eguerdian, 13:00etan aterako omen da leku beretik eta Zangozaraino eramango omen du

jendea, hain zuzen ere handik Xabierrera 15:00etan hasita egiten den gurutze-bidera. Behin Xabierko gaztelura iritsita, gure eskualdetik joandako guztiak elkartuko omen dira, eta meza entzun ondoren, herriira itzuliko.

Erromesaldi horretan parte hartu nahi duten guztiak dei egin diete eta Maimur edo Astiz liburudendetan, edo Garbi lurindandian izena eman eta autobuserako txartela lehenbailen har dezaten eskatu, batez ere bigarren autobus horretakoek.

Hori II. Xabierraldia bada, asteburu honetakoan ospatuko omen dute lehendabizikoa, jakitera eman dutenez, kasu honetan igandean egingen ere zehazki.

LEITZA ▶

Oinatz Bengoetxea doa finalera bi leitzarretatik

Igandean jokatu zuten bigarren finalaurrekoa Abel Barriolak eta berak Ogetan

J. ASTIBIA

Igandean jokatu zuten eskuz binakako finalerdietako partidua, bigarrena, bertan parte hartzen ari den eta dagonezko aritu den Leitzako bi pilotariak, elkarren aurka: Abel Barriola gorritz eta Oinatz Bengoetxea urdinez.

Partidua hasieratik gorri joan bazen ere, azkenik urdin bukatu zen. 22-20ekoarekin, eta Bengoetxea izanen da txapelaren bila joanen dena, Beloki lagun. Lehendabiziko aldiz parte hartu txapelketa honetan eta finalera iritsi! Hori da marka!

LEITZA ▶

-10°C-tako hozberoa markatu dute termometroek

Herriguneetako zenbait txokotan jasotakoaren arabera, hotzenetakoa da

J. ASTIBIA

Atzo goizean termometroei erreparatu eta horrelako datuak jasotzea ez zen harritzekoa izan.

Herrigunean -10°C-taraino jaitsita ibilia zegoen merkuriarioa zenbait txokotan, berdentzabart, eta atzo goizean berriz, 10:30ak aldera, oraindik ere -5°C-tara ezin aillatuz zegoen termometroa. Haizearen eraginez, gainera, are hotzago zirudien giroak.

Mendialdean eta ospeletan ere, koila-zintzarriek urtzeko arriskurik ez zuten izanen ziurrenik.

LEITZA ▶ KIROLA

Punturik gabe itzuli arren, irauten dute

Tanto alderik ttikienarekin galdu zuten Beti Onak taldearen aurka Atarrabian

JAIONE ASTIBIA

1 eta Oko emaitza eman zuen larunbatean, Aurrerak Atarrabiako Beti Onak taldearekin jokatuak futbol partidua, eta punturik gehitzerik gabe itzuli ziren etxera Leitzakoak.

Joko polita egin zuten partiduan aurreratarrek, ahal zutena egin omen zuten, bertara joan zirenen esanetan «ahal duena egiten duenari ezin zaio gehiago eskatu», zioten, eta konforme antzean ageri ziren. Emaitzaren zergatiak agertzerakoan ordea, horrelako zelaetan jokatzeko ohitura faltak eragina izan zuela nabarmendu nahi izan zuten. Izan ere atarrabiaren zelaia, belar artifizialezkoa omen da («baina txarra, zaharretakoa»), zioten eta baloiak «potea nora aldera egi-

nen duen ez da asmatzen», argitu zuten, ondorioz horrelako jokora egokitzea asko kostatzen omen zaie jokalariei, gaineratu zuten, «belar hau oso lakatza da eta irrian joanda, zangoak larrututa bukatu zuten batek baino gehiagok», ziotenez.

Edozein moduz, gol aukerak sortu, sortu omen zituzten leitzarrek eta sartu ere bai, baina «baloiak zutoina jo eta potea arrastoz barrendik egin zuen, baina denak hala ikusi bagenuen ere, partiduko epaileak ez zuten hala egin eta ez zuten goltzat jo», kexu ziren zuzendarietatik. Bestalde, penalti bat ere ez omen zieten adierazi, ziotenez. «Zenbait arbitroren jokabidearekin ere ohitzeko haina kalte jasaten ari gara aurtengo denboraldi honetan», adierazi



Arkixkilen, Beti Kozkorren aurkako partiduko artiboko irudia. J. ASTIBIA

zian HITZARI, atzokoa, Leitzako taldearen arduradunetako batek.

Partiduen denbora bukatu, eta jardunaldia gutxienez hutsnako berdinketarekin bukatuko zuten itxaropenez luzapeneko minutuetan ari zirela, iritsi zen Beti Onak taldeari garaipea eta puntuak emanen zizkion 1 eta Oko gola, bide batez Aurrera, bigarren itzuli honetan aurreneko aldiz partidua galduta, punturik gabe utzi.

Asteburu honetako pasata, Aurrerak oraindik sailkapeneko lehendabiziko postuan jarraitzen du, Baztan atzetik hurbil duela, igoerako postu horietan. Kontutan hartu behar da ere, gainerako taldeek baino partidua bat gutxiago jokatu dagoela (elurra zela eta atzeratutakoa), eta horrek ere abantailaxoa ematen diola aurreneko leku hori mantentzeko garaian, bere atzetik dauden taldeekiko. Baina ttikia.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaldia. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldia. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
▶ San Esteban: 00 68 00
▶ Gernikako arbola: 00 69 00
▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdia)
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ DYA: 67 25 36
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerbitzua: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
▶ Taxi: 67 04 20
▶ Taxi (Leitza): 608 87 30 16

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
▶ Arramele-AEK: 67 12 14
▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Iturrioz, I. Euskal Herria 3 (Ibarra). 943 670 915
Gimeno, A. Elbarren 52 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_publicitat@tolosaldeko-hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info
Anoetaldia. 687 41 00 22
anoetaldia@tolosaldeko-hitza.info
Ibarraldia. 687 41 00 32.
ibarraldia@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzaldeko. 687 41 01 18.
leitzaldeko@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria eta tabernaria.
Sukaldaria eta tabernaria behar dira. Deitu 15:00etatik aurrera. 943 682 154.

ALOKAIRUAN

Garaje itxia. lurre auzoan garaje itxia alokatzen da. 609 43 59 07 edo 665 75 87 74.

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko martxoaren 2a, asteazkena ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Alaitzolaia, Aizua, Albitzar, Añeta, Alzua, Alzo, Amadeita, Anorta, Areso, Balamain, Balaizta, Berastegi, Berrota, Etxauri, Herrialde, Ibarra, Itzalegi, Itza, Irujo, Itzeta, Leizua, Oteiza, Tolosa, Villabona, Zuzuki
besteri: Leizaldeko Eskara Batzordea

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurkitza.
Kultura Salla

943
ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

08

hotzena

01

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA
ARALAREN



Guardetxe: bai
Albi: bai

Pagomari: bai
Igaratza: bai

30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. Festa alternatiboak antolatzeko bilera 19:00etan udaletxean.

Berastegi. Martxoaren 5ean Kako jatekxan egingo den emakumeen eguneko afariaren izen-ematea 943 68 31 51 edo 943 68 33 38 telefonoetan. Gaur da azken eguna.

Tolosa. Banka elektronikoko ikastaroa: errezibo ebexerata, ordainketak internet bidez... KZgunean 17:00etan 19:00etara.

Tolosa. Ezker abertzalea zibil eta zabal gaiaren inguruan Aralar alderdiko Aintzane Ezenarrok eta Mikel Basabek hitzaldia emango dute Kultur Etxean 20:00etan.

Tolosa. Martxoaren 5ean Pirritx eta Porrotx pailazoan eta martxoaren 11n Benito Lerbundi abeslariaren saioetarako sarrerak salgai daude Leidorren 17:00etatik 19:00etara.

Villabona. Dr. Fleming eskolako Guraso Elkartearen hitzaldia 18:00etan Arroako psikomotrizitate gelan. Maribel San Sebastian gurasoen errudun sentimenduz ariko da.

ZINE-KLUBA

Ibarra. Marc Foster-en *Monster's ball* Gaztekean 21:45ean.

Artzainen aspaldiko jolasa

TOLOSA ▶ Hainbat ikastetxetako ikasleak Bote luzea jokoan aritu ziren atzo goizean Ikaspilota programaren barruan



Hirukide eta Jesusen Bihotza ikastetxetako ikasleak aritu ziren jolasean Beotibar pilotalekuan. J.SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Euskal artzainek garai batean asmatu eta garatutako jolasa da Bote luzea, euskal pilotako modaliterik zaharrena. Atzo, Tolosaldeko hainbat ikastetxetako LH 6. mailako ikasleek ezagutzeko eta gozatzeko aukera izan zuten Beotibar pilotalekuan, Berazubi kiroldegian eta Hirukide pilotalekuan lehen zatian



Monitoreak jolasa azaldu zien bildutako ikasleei. J.SAIZAR

eta ondoren Beotibarren bigarren zatian. Jolas hau «berreskuratu eta indartzea» du helburu Ikaspilotak. Kutxaren lababesarekin euskal kirolak eta jolasak sustatzeaz arduratzen den erakundea.

«Taldeka jolasten da eta nahiko konplikatu da azaltzen. Horregatik jolasen bitartez pixkanaka erakusten diegu ikasleei», azaldu zion Ikaspilotako monitorea batek Hitzari. Lehen zatian Bote luzearen inguruko hainbat jolas landu zituzten eta bigarrenean denek Beotibarren Bote luzea saioak burutu zituzten. Paretarik erabiltzen ez duen jolasa da, jokalariek aurrez aurre egoten dira eta esparru mugikorrek erabiltzen dituzte, jolasaren arabera.

Tolosaldeko Hirukide, Berastegiko Muñagorri, Ibarrauko Uzturpe eta Villabonako Jesusen Bihotza ikastetxeak izan ziren atzo parte-hartzaile. Hilaren 17an Tolosaldeko Samaniego eta Laskorain, Alegiako San Joan eta Berrobiko ikastetxeko ikasleek beste saio bat izango dute.

Gipuzkoa osoan zehar horrelako goegi topaketa antolatuta dituzte eta denen irabazleak maitzaren erdialdean finalean elkartuko dira.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Ana.
Zorionak kariño!



URTE ASKOAN

Manex (Ibarra). Gure gizonboak gaur 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat.



AUPA IÑIGO

Osaba Iñigo: Leire, Ainara eta Mikel zure ilobek asko maite zaitugu.



URTE ASKOAN

Naiara Severino Davila (Alegia). Gaur 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Ebekoen partetik.



EUSKAL PRESOKAK BORROKAN - ELKARTASUN MEZUAK

Aupa Pello, Eider, Ekaitz, Iñigo eta Minde.

Euskal Herria, ez dago hilda, ez dago hilda, bai zera! ta zuek zarete horren eredu. Osasuna eta askatasuna. Euskal Herrian zehar gauden eskualdeko borrokalariak.

HITZA,
zorion agurren
tarte

Mesedez,
argazkia bi egun
lehenago ekarri.
Mila esker!

HITZaren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea
TOLOSA
Udaletxeko bulegoa
LEITZA